



**Balantzategi**  
herri eskola • GABIRIA

# PROTOKOLOAK



**Balantzategi**  
herri eskola • GABIRIA



Balentzategi  
herri eskola GABIRIA

# ESKOLA JARDUERAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

## **IRAKASLEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO JARRAIBIDEAK:**

1. Irakasle batek, aurretik saio bat/batzuk faltatuko dituela aurrikusten badu, "Irakasleen Lan -legepeko hezitzaile-pertsonalen hutsegiteak jakinaraztea" (Anexo III eranskina) orria beteko du.
2. Behin beharrak zehaztuz gero erabakiko da Hezkuntzara ordezeko irakaslea eskatuko den edo eskolako irakasleekin ordezkatu den. Ordezkoa iritsi arte ordezkapen hauek egin beharko dira ikastetxeko irakasleen artean.
3. Eskolako irakasleekin ordezkatzeko denetan:
  - Ikasturte hasieran ordutegi bat egingo da, non irakasle bakoitzaren ordu ez lektiboak agertuko diren.
  - Ondoren, lehentasunaren arabera, ordezkapena egingo duen irakaslea izendatuko da.
  - Irakasle bakoitzaren ordezkapen kopurua orekatua izaten saiatuko gara.
4. Posible denean, irakasle titularrak prestatuta utziko du saioa. Posible ez denean, saioa ordezkatu behar duen irakasleak gelako programazioa jarraituko du.
5. Ordezkatzeko irakaslerik ez dagoen kasuetan, bi gela elkartuko dira, ahal eta erantzun egokiena emanaz (espazioa, adina, arloa...).

## **JOLASTOKIA ZAINTEKO ERA:**

1. Ikasketa-buruak zenbait irakasle (begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat) izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten.



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

2. Ikasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute, baita bete behar duten arautegia eta mugak ere.
3. Irakasleek bertatik bertara eta uneoro ikasleei begira egon behar dute.
4. Ikasleek bete behar duten arautegia kontuan izango du arduradunak, baita kontuan izan behar dituzten mugak ere.
5. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

## **EBAKUATZEKO ARAU OROKORRAK:**

### HUSTUKETA OROKORRA

#### Arau orokorrak

Ikastetxean susmagarri den zerbait, sute, uholde edo bonba abisu bat denean, Lan prebentzioko arduradunak (ez badago bere ordezkioak) baloratuko du ikastetxea husteko motiborik dagoen ala ez. Baiezkotan txilibitua joko du hiru bider hiru aldiz eta 112ra deitzen saiatuko da. Lan prebentzioko arduradunak txalekoak hartu eta banatu egingo ditu. Libre dauden irakasleak gela errebisioa egingo dute. Aginduko da nork itzaliko dituen argi indarra, atea ireki edo ikasleei laguntzera joan. Solairu bakoitzeko koordinatzaileak irteeratik urrutien dauden irakasleak izango dira, solairu bakoitzean bat.

Gelan dagoen irakasleak emango ditu ikasleek bete behar dituzten arauak.

Gela bakoitzean ikasle arduradun bat egongo da. Gelako arduraduna leihotik gertu dagoen altuena izango da. Gelako arduradunak leihoak itxi eta argiak itzaliko dituzte. Bitartean gainerako ikasleak lerroan jarriko dira atetik gertu eta gelan egongo dira irakasleak esan arte. Ezin da ezer hartu, ez eta inora joan ere.

Solairuko koordinatzaileak adierazitakoan hasiko dira irtetzen geletatik. Lehendabizi koordinatzailea ez den irakaslea aterako da, atzetik bere gelako ikasleak eta ondoko ikasleak eta koordinatzailea azkena. Gelako azkenak atea itxiko du.

Denen elkargunea plaza erdia izango da eguraldi ona badago, eta elizataria euria bada. Han, gelako elkartzeko dira borobilean edo lerroan. Norbait falta den jabetzeko ikasleak kontatuko dira.



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

### Beheko solairua

(Irakasleak atearen bi orriak irekiko ditu).

-Haur Hezkuntzakoak gela handian bertan duten atetik aterako dira lerro batean kanpora eta aldapatik plazara.

-Gela txikikoak gela handitik aterako dira, terrazara eta aldapatik plazara. Bertan dagoen irakasleak argi indarra kendu beharko du eskailera azpian.

-Dantzalekuan daudenak atzeko edo aurreko atetik aterako dira arriskuaren arabera, terrazara aurretik bada eta plazara. Komunak eta atzeko aldea ikuskatuko ditu irakasleak inor ez dagoela ziurtatzeko.

-Koordinatzaileak komunak eta atzeko aldea ikuskatuko ditu inor ez dagoela ziurtatzeko, baita dantzalekua ere.

### 1.solairua

-Koordinatzaileek erabakitakoaren arabera hasiko dira ateratzen.

-Gela txikian irakaslerik badago gela txikiko RACaren etengailua itzaliko du eta ikasleak gela ertainekoen lerroan jarriko dira.

-Koordinatzaileak komunak (bertako leihoak itxi) eta atzeko aldea ikuskatuko ditu inor ez dagoela ziurtatzeko.

### 2.solairua

- Koordinatzaileek erabakitakoaren arabera hasiko dira ateratzen. Koordinatzaileak irakasle gela, ganbara, liburutegia eta idazkaritza ikuskatuko ditu inor ez dagoela ziurtatzeko.

Lan prebentzioko arduraduna izango da azkena irtetzen.

### SUA AURREKALDEAN DENEAN EDO ESKAILERA AZPIAN

#### Beheko solairua

-Gela handikoak gelan bertan duten atetik aterako dira kanpora eta aldapatik futbol zelaira edo pasilotik atzeko atetik futbol zelaira joango dira arriskuaren arabera.

-Gela txikikoak, pasilotik, atzeko atetik, futbol zelaira joango dira. Sua erdian egongo balitz, gela handitik aterako dira.

-Dantzalekuan norbait badago atzeko edo aurreko atetik aterako dira arriskuaren arabera, baina besteekin futbol zelaian elkartuko dira.

#### 1.solairua

Suak eskaileretatik pasatzea eragozten badu:

-Gela handiko ikasleak aterako dira lehenak atzeko terrazara.

-Gela ertainekoak aterako dira ondoren eta jarraian gela txikikoak.



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

## 2.solairua

Ikasleak aterako dira eta eskaileretatik jaitsiko dira 1.solairura, barrura sartu eta pasilotik atzeko terrazara joango dira. Berdin irakasle gelan dauden irakasleak eta idazkaritzakoak ere.

### ARAZOA BAZKAL ORDUAN DENEAN

#### OSTATUAN BADA

Jangelan daudenean:

Zaintzaileek ikasleak zenbatuko dituzte. Eskailera ondoan dauden ikasleak hasiko dira jaisten, ahal badute inguruan duten txikiren bati lagunduz, bestela bakarrik. Eskailerak jaitsiko dituzte eta garajeko bi ateetako batetik aterako dira, lasaiena dagoen lekutik edo sutatik urrutien dagoenetik, futbol zelai ondoko espalaira joango dira zaintzaileekin futbol zelaira pasatzeko, eta ikasleren bat falta den kontrolatzeko kontatu egingo dira.

### ESKOLAN BADAUDE BAZKALDU ETA GERO

Zaintzaile bat arduratuko da abisua pasatzeaz hitzez edo txistua jotzeaz irakasleak eta ikasleak jabe daitezzen. Zuzendaria arduratuko da jarraibideak ematen: argi indarra kentzeaz...

- Komunean badaude garajeko atzeko atetik aterako dira futbol zelaira.
- Dantzalekukoak aurreko eta atzeko atetik atera litezke, kopuruaren eta suaren kokagunearen arabera.
- Solairu bakoitzeko koordinatzaileak komunak eta atzeko aldea ikuskatuko ditu inor ez dagoela ziurtatzeko.

## **EKINTZA OSAGARRIAK ANTOLATZEKO ETA AURRERA ERAMATEKO JARRAIBIDEAK:**

1.Leku edo baliabide desberdinak eskatzen dituzten ekintza didaktikoak "osagarriak" izango dira. Hona hemen jarduera horietako batzuk: gaua kanpoan igarotzeko irteera, hezkuntza ekimen bereziak (idazleen bisitak), gelaz kanpoko ikustaldiak, ikastetxean egindako festak... Ekintza hauek ikasle guztientzat dira.

2.Ekintza hauek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin bat etorri behar dute. Ekintza horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea,



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

tokia, dagokien ikasleen parte hartzea eta ekonomi ezaugarriak zehaztuko dira.

3. Ekintza osagarrien zerrenda Urteko Planean jaso behar da eta OOG-ri dagokio egitasmoa onartzea.

4. Ikastetxetik kanpo egiten diren ekintzetarako gurasoek idatziz emandako baimena beharko da. Baimen hori ikasturte hasieran jasoko da eta ikasturtean egiten diren ekintzetarako baliagarria izango da.

5. Justifikatutako arrazoiren batengatik, ikasleren batek, ekintza osagarriren batean parte hartuko ez balu, guraso edo tutoreek horren berri eman beharko diote bere seme-alabaren tutoreari, parte ez hartzeko dituen arrazoiak adieraziz.

6. Ikastaldea kanpoan izanik ikasleren bat ikastetxean geratuz gero, ohiko ordutegian ikasle horren zaintza antolatzen saiatuko da ikastetxea. Zaintza horren antolaketa nola gauzatu egoera bakoitzean erabakiko da. Eskolara etorri bada, bertako dinamikara bilduko da.

7. Ekintza bakoitza egin aurretik gurasoek/tutoreek informazioa jasoko dute; bertan, ekintzari buruzko zehaztapenak azalduko dira. Bidaiak eta irteerak egiteko unean, ikasleen adinaren eta premiaren arabera, zehaztuko da bertara joango den ikasle eta irakasle kopurua. Horretarako kontuan hartuko da ikasturte hasierako Hezkuntza Saileko zirkularrak arautzen duena.

8. Ekintza osagarri batzuen (herrian bertan edo inguruan gauzatzen direnak) garraioa gurasoen kotxeak erabiliz egingo da. Horretarako guraso bolondresak eskatuko dira. Beste ekintzetarako, berriz, autobusa erabiliko da.

## **IKAS KOMUNITATEAREN DATU PERTSONALAK, IRUDIA ETA LANAK BABESTEKO PROTOKOLOA:**

1. Ikas komunitatearen datu pertsonalak, irudia eta lanak babeste arren, telefonoz edo idatziz datuak eskatzen dituztenei ez zaizkie emango baimenik ez badute aurkezten.

2. Ikastetxeak ikusten badu zenbait alditan eta zenbait lekutan ikasleen lanak, irudia edo datuak agertu behar direla, ziurtatuko du gurasoen baimena baduela horretarako.



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

3. Baimen hori ikasturte hasieran jasoko da idatziz, eta, ikasturte osorako baliagarria izango da.
4. Gurasoek ez badute baimenik ematen, ikasle horren datu pertsonalak, irudia eta lanak ez dira ikastetxetik kanpora irtengo; ezta interneteko zenbait baliabideetan agertuko ere.

### **ELURRA EGITEN DUENEAN JARRAITUKO DIREN IRIZPIDEAK:**

1. Lehenengo irakaslea iristen denean eskola ireki egingo da.
2. Gainontzeko irakasleak egunean zehar iristen saiatuko dira. Horretarako Udala arduratuko da eskolako sarrera-irteera orduetan bidea garbi egon dadin.
3. Aurreko egunetik eskola ixtea erabakitzen bada, ikasleen guraso guztiei abisua pasatuko zaie eta ordu horiek errekuperatu egin beharko dira. Klaustroak, errekuperatzeko orduen dataren proposamena OOGean aurkeztuko du eta honek, badagokio, onarpena emango dio.

### **GREBEN BOZKETARAKO IRIZPIDEAK:**

1. Bozketa paperez egingo da.
2. Bozketarako momentuan galdera honi erantzungo zaio:  
- Grebari bai ala ez.
3. Emaitzaren arabera egun horretako jarduera egokituko da, beti ere gutxiengo zerbitzua eskainiz: Zuzendaritza taldeko kide bat eta irakasle bat.
4. Greba egunetan, ikasleak eta eragiten dituen guztiak (gurasoak, garraioa, jangela...) jakinaren gainean jarriko ditu Zuzendaritza taldeak 48 ordu lehenago, bertan adieraziz egoera zein den (langileak, garraioa, jangela, ...).
5. Greba proposatzen den egunean klaustrokideren bat ikastaro bat (Irale, Garatu...) egiten balego, eskolan dagoen ordezkioak du hitza bozkatzerako orduan.

## ONDOEZA ETA BOTIKEN PROZEDURA:

1. Ikaslea ondoezik baldin badago kalentura hartu eta gurasoei/familikoei deituko zaie.
  2. Guraso edo familiakoekin kontaktatu ezean, eskolan jasota izango da botikarik eman behar zaion ala ez, eta baiezko kasuan zer (Apiretal, Dalsi); alergia-rik duen...
  3. Tratamenduren baten ondorioz botika hartu behar badu, etxetik ekarriko du botika eta idatzirik arauak: kantitatea eta ordua.
  4. Ikaslea gaixorik badago gurasoak ahaleginduko dira beraien seme edo alabaren bila etortzen. Ezin baldin badute etorri, eskolan geratuko da irtetzeko ordura arte.
  5. Sendagilearengana eraman beharra gertatuz gero, (zauriak, kolpeak...) lehendabizi gurasoei abisatuko zaie bila etortzeko. Ezin badute eskola arduratuko da.
- (Irakaslea ez badago bere auto partikularrean eramateko prest edo ezin badu, taxia eskatuko da).

## HERIOTZAREN AURREAN:

Protokolo hau Eskola Komunitateko kideen heriotzaren kasutan aplikatuko da.

Familiaren aurrean ikastetxearen erantzuna:

- Lehenengo momentuan, berria ezagutu bezain pronto, zuzendariak (eskola komunitate guztiaren partetik) familiari dolumina ematea telefonoz; gero egunkarira hil-iragarki bat bidaltzea ikastetxearen izenean, hemen komunitate osoa sartuko dugu: zuzendaritza, irakasleak, ikasleak eta ikasleen familiak. Loreak bidaliko dira tanatoriora eta zuzendaritzaren ordezkariak familia bisitatuko du ikastetxearen izenean errespetua eta dolua adierazteko.
- Hiletara edo agurtzeko ekitaldira joatea: zuzendaritza taldea, tutorea (ikasle edo familiaren kasuan), gelako irakasleak (ikaslearen kasuan) ikastetxeko ordezkariak ofizial bezala, ez indibidualki.





## Balentzategi

herri eskola GABIRIA

- Familiarekin harremanetan jartzeko (ikaslea hil den kasuetan), ikastetxearen izenean gelako tutorea izendatzea.

### Informazioaren trukea inplikaturakoekin:

- Irakasleekin eta irakasleak ez direnekin: berria emateko giro egoki bat sortu, samina adierazteko erraztasuna eman eta gidoi baten bidez ikastetxeak emango dituen edo ematen ari den pausoak ematea. Gertatutakoari buruz hitz egitea eta hausnarketa bat egitea.
- Ikasleekin: gelakideei berri ematea, samina adierazteko erraztasuna eman. Gelako ekintzak gelditu egingo dira, sentimenduak adierazteko. Leku egoki eta denbora bat erraztea horretarako: berria nola jaso duten, zer sentitu duten eta zer sentitzen duten... Behar bada zenbait material landuko da. Ikaslearen mahaia eta aulkia kurtso bukaera arte bertan egongo da, ikasturte bukaeran erretiratuko dira.
- Familiekin: eskutitz bat bidaltzea (eranskina 1): berria adierazteko, aholkuak emateko eta doluari buruzko orientazioa emateko.

### Gelako programazioaren egokitzapena eta programazioa:

- Egun horretako ekintzak gelditzea eta programazioa erabat aldatzea. Unitate didaktiko berezia (eranskina 2) landuko da: sentimenduak eta pentsamenduak adierazteko, taldea elkarrekin egoteko eta erlaxatzeko.
- Tutoreak orientatzea unitate didaktiko horretako ekintzak.
- Egun hori eta gero, beharrezkoa denean klaseak gelditzea eta gertatutakoari buruz hitz egitea eta emozioak adieraztea.

### Ondoren:

- Erne egotea ingurukoekin: seme-alabak, anai-arrebak, lagunak.
- Beharrezkoa bada ikastetxeko kontsultoreak parte hartzea edo kanpoko laguntza bilatzea arazoa handitzen bada eta beharrezkoa ikusten bada.
- Hildakoa ikaslea bada, ikasturtearen bukaeran familiarekin egotea, urtean zehar egindako gauzak familiari emateko. Ekintza hau tutoreak eta zuzendaritza taldeko kide batek egin dezakete.
- Ikasturte bukaeran, hildakoa ikaslea bada, azken agurra emateko ekitalditxo bat egitea: erakusketa, eskutitza, plaka, bere aulkia eta mahaia erretiratzea...



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

# ELKARBIZITZARI BURUZKO ZENBAIT ARGIBIDE

## **ELKARBIZITZA ARAUAK EZARTZEKO ETA EZAGUTZERA EMATEKO PROZEDURA:**

1. Irakasleen taldea Elkarbizitzako gaia lantzeko elkartzen denean, bertan antolatuko da Tutoretza saioetan zer landu ikasleekin gai honen inguruan: zein esparru landuko den, adibidez.
2. Esparru desberdinetako elkarbizitza arauak ikasleekin tutoretza saioetan proposatuko dira, ondoren Elkarbizitza Behatokian zehaztuko direlarik. Horretarako Elkarbizitza Behatokiak ikasleen proposamenak eta esparru bakoitzean dagokion beste edozein pertsonaren proposamenak jasoko ditu, eta arautegi bat zehaztuko du.
3. Elkarbizitza arauak tutoretza saioetan landuko dira; beraien jarraipena ere bertan egingo delarik.
4. Esparru guztietako elkarbizitza arauen berri guraso guztiek edukiko dute ikasturte hasieran, horretarako dokumentu bat banatuko zaio familia bakoitzari; baita irakasle bakoitzari ere.
5. Langile ez-irakasle guztiek izango dute beraien esparruan arauak ezartzean parte-hartzea. Arautegia zehaztean, arautegi horren berri ere izango du.
6. Ikasturtero errebisatuko da arautegi guztia, batez ere gelako elkarbizitza arauak, eta behar diren edo komenigarri ikusten diren aldaketak egingo dira bertan. Lan honetaz Elkarbizitza Behatokia arduratuko da.

## **NEURRI HEZITZAILE ETA ZUZENTZAILEAK:**

1. Neurri zuzentzaile eta hezitzaileak aplikatzeko, lehenengo pausoa ikasleen jokabideak sailkatzea izan da. Jokabide hauek hiru mailatan sailkatu ditugu:



**Balentzategi**  
herri eskola  GABIRIA

- Jokabide desegokiak
  - Elkarbizitzaren aurkako jokabideak
  - Elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak
2. Jokabideak sailkatuta gero, bakoitzean jarraitu beharreko prozedura aipatzen da (Jokabideak eta ondorioak dokumentua).
3. Jokabide desegokiren bat antzematen denean, dokumentu honetan idatzita dagoena aplikatuko da. Horretarako, dokumentu honen berri Eskola Komunitate guztiak izango du.



Balentzategi  
herri eskola GABIRIA

# EBALUAZIOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

## **G.I.T.-AK (GELAKO IRAKASLE TALDEAK) JARRAITU BEHARREKO PROZEDURAK:**

### **-Partaideak:**

Gela bakoitzean sartzen diren irakasle taldea eta kontsultorea.

### **-Maiztasuna:**

Lehenengo hiruhilabeteetan bitan, bat urriaren bukaeran eta bestea informeak banatu aurretik.

Bigarren hiruhilabeteetan informea banatu edo gurasoekin egon aurretik.  
Hirugarren hiruhilabeteetan informea banatu aurretik.

### **-Funtzioak:**

Ikasle bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren informazioa elkartrukatzea: arloekiko edo eremuekiko prozesua, jarrera orokorra eta orientabideak.

Informazio honen ondorioak ateratzea eta bideratzeko hainbat erabaki hartzea.

### **-Informazioaren erabilera:**

Ikasleekiko: G.I.T.-an hartutako erabakiak berarekin batera bideratzea tutorearen bidez.

Gurasoekiko: G.I.T.-an aipatutako informazioa eta erabakiak azaltzea tutorea edo tutoreak eta kontsultorearen bidez.

Irakasleekiko: Irakasle bakoitzak duen informazioa eman eta gainerako parte-hartzaileena jasotzea.

Hauetaz gain, informazio esanguratsurik balego, dagokion pertsona edo erakundearekin harremanetan jartzea tutorearen edota kontsultorearen bidez.

### **-Nork eta zer informazio jaso:**



**Balentzategi**  
herri eskola • GABIRIA

Tutoreak eta kontsultoreak ikasle bakoitzaren eta taldearen informazioa jasoko dute: jarrera orokorra, arloarekiko edo eremuarekiko prozesua eta orientabideak.

Gainerako irakasleek hartutako erabakiak jasoko dituzte eta norberari garrantzitsua iruditzen zaion informazioa.

## **EBALUAZIO SAIOETAN KOMENTATU DENAREN BERRI GURASOEI EMATEKO PROZEDURA:**

### **-HAUR HEZKUNTZA**

1. Ikasturtean zehar bi informe idatzi banatuko zaizkie gurasoei, abenduan eta ekainean. Bertan, ordurarte ikasleak akademikoki (eremuka eta arloka) eta pertsonalki izan duen ibilbidea azalduko da. Informe honetako atal bakoitza arloko irakasle arduradunak beteko du eta tutoreak birpasatu eta sinatuko du. Informe honen kopia bat ikastetxean artxibatuko da.
2. Ikasturtean zehar hirutan bilduko dira tutoreak gurasoekin, abenduan, martxo-apirilean eta ekainean. Bertan, ordurarte ikasleak akademikoki (eremuka eta arloka) eta jarrera aldetik izan duen ibilbidea azalduko zaie gurasoei. Tutore bakoitza arduratuko da zeregin honetaz, ikasle horretaz G.I.T. bileran jaso duen informazioa erabiliz.
3. Ikasturteko edozein tartetan eta beharra ikusten den guztietan bilduko dira tutoreak eta gurasoak. Horretarako elkarrekin harremanetan jarriko dira tutoreak edo gurasoak eta eguna zehaztuko dute.
4. Zenbait kasutan kontsultoreak ere parte hartuko du ahozko bilera horietan.

### **-LEHEN HEZKUNTZA**

1. Ikasturtean zehar hiru informe idatzi banatuko zaizkie gurasoei, abenduan, martxo-apirilean eta ekainean. Bertan, ordurarte ikasleak akademikoki (arloka) eta pertsonalki izan duen ibilbidea azalduko da. Informe honetako atal bakoitza arloko irakasle arduradunak beteko du eta tutoreak birpasatu eta sinatuko du. Informe honen kopia bat ikastetxean artxibatuko da.
2. Ikasturtean zehar bitan bilduko dira tutoreak gurasoekin, abenduan eta ekainean. Bertan, ordurarte ikasleak akademikoki (arloka) eta jarrera



**Balentzategi**  
herri eskola  GABIRIA

aldetik izan duen ibilbidea azalduko zaie gurasoei. Tutore bakoitza arduratuko da zeregin honetaz, ikasle horretaz G.I.T. bileran jaso duen informazioa erabiliz.

3. Ikasturteko edozein tartetan eta beharra ikusten den guztietan bilduko dira tutoreak eta gurasoak. Horretarako elkarrekin harremanetan jarriko dira tutoreak edo gurasoak eta eguna zehaztuko dute.

4. Zenbait kasutan kontsultoreak ere parte hartuko du ahozko bilera horietan.

